



so eta txoko ilun asko ditu... eta **lurrealde** asko ezezagunak dira, batera eta bestera mugitzea ez delako erraza. Hala ere, istorio honetako protagonista, lamia gazte bat, leku urrun askotan ibiliko da bere lagunekin.

Hauxe da lamia horren istorioa.

Orain gure lamia kostaldean dago, bai, itsas-lamia delako. Lamiaren etxea itsasoa da. Bertan pasa du bere bizitza ia-ia osoa.

Lamia mota asko dago: **erreka**etako lamiak, itsas-lamiak, mendi-lamiak, **kobazulo**etako lamiak, basoko lamiak... Baina guztiek daukate ezaugarri berdin bat: ura gustatzen zaie. Askok maite dute uretan ibiltzea eta jolastea. Beharrezkoa dute bizitzeko.

Gure lamiak ez dauka izenik, garai honetan inork ez daukalako izen berezirik. Lamia guztiak dira Lamia:

#

lurrealde: «territorio».

erreka: ibai txikia, «río».

kobazulo: koba, leize, «cueva».

—Kaixo, Lamia! Zer moduz? —galdetzen diete lamia guztiei.

Eta berdin gertatzen da basajaun bat ikusten duzunean:

—Gero arte, Basajaun! —esango diozu.

Hau da, basajaun guztiei Basajaun deitzen diete.

Bada, gure lamia **itsaslabar**reko arroka baten gainean dago. Ilea **orrazten** ari da, ile **hori** luzea. Orrazia **urrezkoa** da. Eder-ederra da gure lamia. **Koartza**-hankak dira haren gorputzeko **atal** politena. **Soineko** zuri luzea du, **lihozkoa**; lurreraino heltzen da eta oinak **estaltzen** dizkio.

#

itsaslabar: kostaldea.

orraztu: «peinar».

hori: errubioa.

urre: «oro».

koartza: «garza».

atal: «miembro».

soineko: «vestido».

liho: «lino».

estali: «cubrir».

Bat-batean **kaio** bat agertu da zeruan eta hau esan dio lamiari:

—Lamia! Ikusi al duzu Ur-eder Erreka?

—Ez, Kaioa, ez dut ikusi. Ia egun guztiak **ematen** ditut hemen, itsasaldean. Badakizu kostaldean bizi naizela —azaldu dio lamiatxoak—. Zer **gertatzen** da?

—**Izugarria** da! —oihukatu dio Kaioak— Errekako urak gorri-gorri datoz. Errekak kolore gorria hartu du.

—Eta zergatik dute kolore arraro hori?

—Inork ez daki zergatik duten kolore gorria. Beldurtuta gaude guztiok.

Lamia ere piska bat beldurtu da. Asko **kezkatzen** da urek arazoak dituztenean. Lamiak uraren lagunak dira, urak ematen die lamiei **bizitza** eta **edertasuna**.

—Hara joango naiz! —**erabaki** du lamia gazteak.

—Eta neu ere bai. Zurekin joango naiz —erantzun dio kaioak, serio, lamiaren **jarrera** ausartarekin ilusionatuta.

#

kaio: «gaviota».

eman: «pasar, dedicar (tiempo)».

gertatu: «ocurrir».

izugarri: ikaragarria, beldugarria, «terrible, tremendo».

kezkatu: «preocuparse».

bizitza: «vida».

edertasun: «belleza».

erabaki: «decidir».

jarrera: «actitud».

UR-EDER ERREKAKO UR GORRIAK

Lamia **igeriketan** joan da, itsaslabarreko arroketatik errekako ahora, **itsasadarrera**. Buru gainean kaioa doa, **hegan**, laguntzeko.

—Begira, Lamia! —**oihukatu** dio kaioak.

Lamiatxoak errekarantz begiratu du eta... arraioa! Egia da. Errekako urak gorri-gorri datoz. Gorri kolore bizi-bizia dute.

Lamia **lehor** irten da. Lehorretik errekan gora doa, poliki-poliki. **Harrituta** dago. Kaioak oihuka jarraitzen du.

—Ikusten, ikusten?

Baina lamiak ezin dio erantzun. Begiak zabal-zabalik ditu, platerak bezala. Harrigarria dela pentsatzen ari da. Zergatik edukiko dute kolore gorri arraro hori errekako urek? Ezin du ulertu.

#

igeriketan: «nadando».

itsasadar: «ría».

hegan: «volando».

oihukatu: «gritar».

lehor: «tierra firme».

harritu: «sorprenderse».

1

Bete itzazu hutsuneak eta istorioaren laburpena izango duzu.

Lamia kostaldean (1) Itsas lamia da. Kaioa bere laguna da. Berri harrigarria (2) kaioak lamiari: errekako urak gorri datozela (3) Lamia asko larritu da. Laster konturatu da erreka guztietan gertatzen dela gauza bera. Galtzagorri, Tartalo eta Ipotxaren lagun-tzaz, misterioa argitu (4) Bost lagunak bidaian (5), mendebaldetik ekialdera. Mendi handi baten barruan, kobazuloetan, gerra ezkutu bat dagoela (6): ipotxak herensugeen kontra. Lamiak (7) bada kiela zer gertatzen ari den. Lamiak (8) uren kolorearen misterioa argitu duela. Lamiak misterioaren giltza dauka.

- (1) daude / dago / dira
- (2) eman dute / eman dio / eman du
- (3) esan dio / esan da / esan dira
- (4) nahi du / nahi zaio / nahi zaizkio
- (5) hasi da / hasi du / hasi dira
- (6) jakin zaio / jakin dute / jakin dira
- (7) uste du / uste da / uste dute
- (8) pentsatzen da / pentsatzen du / pentsatzen dute

2

Eman hitz hauen sinonimoak. Hitz guztiak istorioan agertu dira.

Adib.: <i>toki</i>	—	leku
<i>erreka</i>	—
<i>erraldoi</i>	—
<i>azkar</i>	—
<i>goibel</i>	—
<i>problema</i>	—
<i>sekula</i>	—
<i>herensuge</i>	—

3

Esan honako esaldi hauek EGIA ala GEZURRA diren.

- EG** – Istorio hau duela gutxi gertatu da.
- EG** – Istorio honetako pertsonaia nagusia Kaioa da.
- EG** – Istorio honetan Tartalo pertsona gaiztoa da.
- EG** – Galtzagorriak garaia eta indartsuak dira normalean.